



SARS-CoV-2 BIDEZKO PANDEMIA-EGOERAN SANTA BARBARA ELKARTEA IREKITZEKO ETA ERABILTZEKO OSASUN-IRIZPIDEAK

Dokumentu honen helburua elkarteko erabiltzaileen artean COVID-19ren bidezko transmisioa eta infekzioa prebenitzeko irizpideak ezartzea da.

4 Arau esparru hartu dira kontutan:

- Euskal Autonomia Erkidegoa 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa.

-OSASUN MINISTERIOAREN normaltasun berrira igarotzeko Plana.

-SND/507/2020 Agindua, normaltasun berrirako trantsiziorako planaren 3. fasea aplikatuz alarma-egoera deklaratu ondoren ezarritako estatu-mailako zenbait murrizketa malgutzeko.

-Euskal Autonomia Erkidegorako trantsizio-prozesuaren 3. fasea aplikatzeko arauak ezartzen dituen 13/2020 Dekretua.

Elkartearen irekiera goian aipatutako legerian oinarrituta izan da. Zehatzago, 13/2020 Dekretuko 1 eta 3.3 artikuluetan.

1.- EDUKIERA ETA GUTXIENeko DISTANTZIAK

-Erabiltzaileen edukiera murriztu da. Barruan 5 mahai eta kanpoan 6 mahai ezarri dira. Ezingo da jarrita dauden mahaiak baina gehiago erabili.

-Bazkide bakoitzak mahai bat bakarrik erreserbatu eta erabili ahal izango du.

-Mahaikide guztiak eserita kontsumitu beharko dute.



2.- HIGIENE- ETA/EDO PREBENTZIO-NEURRIAK

A. Lokalaren higiene-neurri orokorrak

Lokal guztia garbitu eta desinfektatu egin da.

Aulki guztiak eta mahaiak hasi aurretik eta amaitu ondoren garbitu egingo dira, bazkide bakoitzaren ardura izango da bere otordua amaitzen duenean.

Jarduera hasi aurretik eta zerbitzu bakoitzaren amaieran berriro garbitu eta desinfektatuko da, arreta berezia guztiok erabiltzen ditugun gai eta ekipamenduetan jarriz.

Lokala ondo aireztatzen saiatu behar dugu, elkartean aire nahikoa berritzen dela ziurtatuz.

Gel hidroalkoholiken banatzaileak erabili beharko dira, birizida bezala baimenduak direnak eta Osasun Ministerioak erregistratuak, elkartearen sarreran eta mahai bakoitzean topatuko dituzue.

Paperezko mahai zapi eta mantalak erabili beharko dira. Galarazita geratuko da teladunak erabiltzea.

Ontzi-garbigailuko garbiketa-tenperaturak 60/90 °Ckoa izan beharko du.

Garbitzailea garbiketa lanak egiten ari den bitartean, garbitzen dituen eremuetan ezingo da sartu, sukaldea, komuna eta bodega.

B. Sukaldeko neurri espezifikoak

Jarduerari ekin aurretik, laneko eremuak eta gainazalak garbitu eta desinfektatu egin dira.

Mahai bakoitzeko bazkide bakarra izango da janaria edo edariak manipulatuak dituenak. Bazkide hauen arteko gutxienezko distantzia mantendu beharko da eta eskuak maiz garbitu beharko ditu. Pilaketak ekiditeko erabilera txandak antolatuko dira beharrezkoa izan ezker. Gehienez 4 erabiltzaile momentu berean.

Mantalak eta sukaldeko trapuak norberak ekarri beharko ditu etxetik.



Elikagaiak manipulatzeko prozesuetan higie-neurriak zorrotz bete, eta maskarak erabili beharko dira.

Elikagaiak manipulatzeko erabiltzen diren tresnak ez trukatu eta maiz garbitu.

Ezingo da hozkailuetan janaririk gorde.

Kafetera erabili aurretik eta erabili ondoren garbitu beharko da.

Parrillaren erabilerarako sukalderrako aurreikusten diren neurriak errespetatu beharko dira garbitasun, erabilera eta pilaketen kasuetarako.

C. Komunen berariazko neurriak

Komunetan pertsona bat egongo da gehienez, laguntza behar duten pertsonen kasuan izan ezik; kasu horretan, laguntzaileak ere erabili ahal izango du.

Xaboa, eskuak lehortzeko papera, desinfektatzailea eta eskuz eragin behar ez den tapa duen paperontzia ezarri dira, egin beharrekoak egin ondoren erabiltzeko.

Komunen garbiketa-neurriak eta komunen garbitasunaren maiztasuna handitu egingo dira.

Komuna erabili ondoren desinfektatu beharko du erabiltzaile bakoitzak.

D. Beste neurri batzuk

Jardueraren arauak zaintzeko, betetzeko eta betearazteko ardura Bazkide eta erabiltzaile guztiena da.

Sukaldeko, jantokiko eta komunetako funtzionamendu-arauak jasotzen dituzten informazio-kartelak ezarri dira, higie-neurriak gogoraraziz,

Mahai jokoetarako elementuak erretiratu dira. Nahi izatekotan bakoitzak etxetik ekarri ahal izango ditu.



Ordainketarako ez da aldaketarik aurreikusi. Ordenagailuaren pantaila garbitu egin beharko da erabili eta gero. Gogorazi nahi da, ordainketarako txanponak saihestea lehenesten dela.

ELKARTEAN EGITEN DIREN JARDUERETARAKO DOKUMENTU HONETAN ADIERAZITAKO GOMENDIOAK ALDE BATERA UTZITA, EZINBESTEKOA DA OSASUN SAILAK HERRITAR GUZTIENTZAT GOMENDATUTAKO HIGIENE- ETA PREBENTZIO-SEGURTASUN HIGIENIKOKO ETA SANITARIOKO PROTOKOLOA JARRAITZEA, COVID-19REN AURREAN.

